

SAKANAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO ATSEDENALDIETAN HAURREN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA BAT KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOA

1. PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa honen bidez parte-hartzaileen euskararen erabilera sustatu nahi da, zehazkiago, euskara, hizkuntza akademikoa izateaz gain, haurren harremanetarako hizkuntza naturala bihurtzea da programaren helburu nagusia.

2. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Sakanako Mankomunitateak laguntza tekniko kontratatu nahi du, Sakanako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan D eta A ereduko Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako talde orotan jolas monitorizatuen bidezko ordu erdik o 8 saio emateko.

Ikastetxe txikietan, alegia maila bat baino gehiago batera dituzten ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako haurrek parte hartu ahal izanen dute programan, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- ✓ Ikastetxe bereko haurrak izatea.
- ✓ Gela berean egotea, eta, beraz, tutore bera izatea.
- ✓ Taldea osatu ahal izateko haur kopuru nahikoa izatea.

Halaber, Haur Hezkuntzako 3.mailako haurrek parte hartu ahal izanen dute baldin eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoekin osatzen badute taldea eta arestian aipatutako baldintzak betetzen badira.

Gehienez ere 47 taldetan eskaini ahal izanen da modulua urtean. Hona taldeen banaketa ikastetxez ikastetxe:

- ✓ Iñigo Aritza ikastola: 6 talde.
- ✓ Andra Mari ikastola: 6 talde.
- ✓ Olaztiko Herri Eskola: 3 talde.
- ✓ Zelandi ikastetxe publikoa: 9 talde.
- ✓ Urdiaingo Herri Eskola: talde 1.
- ✓ Arrano Beltza ikastetxe publikoa: talde 1.
- ✓ San Donato ikastetxe publikoa: 3 talde.
- ✓ Arbizuko Herri Eskola: 3 talde.
- ✓ Lakuntzako Herri Eskola: 2 talde.
- ✓ San Miguel ikastetxe publikoa: 2 talde.
- ✓ Atakondoa ikastetxe publikoa: 8 talde.
- ✓ Jesusen Bihotza ikastetxe itundua: 3 talde.

Bestalde, 16 saio aurreikusiko dira behar bereziak dituzten haurren arretarako.

Jolas monitorizatuez arduratuko diren begirale edo hezitzaileek bere eginkizunak burutzeko honako titulazioak izan beharko dituzte: Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua edota hezkuntzarekin zein animazioarekin lotutako lanbide heziketako zein unibertsitateko ikasketak eta EGA edo baliokidea. Taldeetan egon behar duen begirale kopurua honakoa izanen da: 18tik gorako taldeetan bi begirale egongo dira, eta taldea osatzeko gutxienez 8 lagun egongo dira. Taldeak gehienez 25 lagunekoak izanen dira.

Kontratua sinatutakoan, esleipendunak programa helaraziko dio Sakanako Mankomunitateari —moduluen egutegia ikastetxeek eta esleipendunak adostuko dituzte—, eta, moduluak bukatutakoan, esleipendunak memoria helaraziko dio Sakanako Mankomunitateari. Esleipendunak memorian zehaztuko ditu, besteak beste, zein ikastetxek jaso dituzten moduluak, zenbat taldek ikastetxe bakoitzean eta zein eredutakoak. Horretaz gain, begiraleen datuak, moduluetakoko programazioa eta edukiak —egutegia eta ordutegia barne— eta ikastetxearen, irakaslearen eta begiraleen balorazioak jasoko dira.